

Bakearen Eguna



Ikastetxea eta lekua:

CEIP Andalucía ikastetxea

(Kordoba)

Gauzatu zen data:

2020ko urtarrilaren 30a

Harremanetarako pertsona:

Nuria Sendra Gutiérrez

Ikastetxearen testuingurua,
hezkuntza-maila eta ikasleen profila:

Tel. 635398103

nsendragutierrez@gmail.com

Ikastetxearen testuingurua, hezkuntza-maila
eta ikasleen profila:

CEIP Andalucía Kordobako hegoaldeko barrutian, hiriburuko eremu behartsuenetako batean, dagoen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat da.

Ikastetxearen ingurunea gorabehera, familiek parte hartzen dute, eta irakasleek ere motibazio berezia dute. Absentismoa ez da inguru horretako beste ikastetxe batzuetan bezain handia. Ikastetxea AMPA ikasleen guraso-elkarteen sarean, Berdintasun-sarean eta Hego-barrutiko gazteen sarean sartuta dago, eta ikastetxeak inguruarekin lan egiten du sare horien bitartez.

Esperientziaren deskribapen laburra

Zein zen xedea?



Jardueraren helburua zen urtero egiten den Bakearen Egunaren ospakizuna baliatzea herritartasun globalerako ikuspegia txertatzeko; horretarako, “Mundua hobetzen dugu bakean bizitzeko” leloa adostu zen, gure ingurumena zaintzeari eta hobetzeari buruz hausnartzeko.

Zer asmo nuen?



Ikastetxeetan, zenbaitetan, ohiko arazoa izaten da jarduera gehiegi egitea; horren ondorioz, jarduera horietako batzuk puntualtzat hartzen dira, eta hezkuntza-komunitatearen inplikazioa txikia izaten da. Jarduera honen bitartez, aurreikusita ziren zenbait jarduera bateratu eta zeharkakotasunez landu nahi ziren, hala nola Bakearen Eguna, gure ikastetxe-planean zeuden intereseko gaiak landuz (esaterako, ingurumena), eta hori guztia hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin.

Herritartasun globalaren ikuspegitik, gure jokatzeko moduak ingurumenean dituen ondorioez kontzientziatu nahi zen.

Hau da, munduan bakea lortzeko, gure Lur planeta zaintzea zein garrantzitsua den azpimarratu.

Zer egin nuen eta nola?

Hezkuntza-komunitate osoa parte hartzera bultzatu, eta 6. mailako ikasleei espazio eta une egokiak erraztu, erantzukizunez eta ahalduntzearen bitartez jarduera euren zuzendu zezaten.

Zer lortu dut/dugu?



Hezkuntza-komunitate osoak (ikasleek, klaustroak eta familiek) jardueran esku hartzea lortu dugu.

Aurreratu egin dugu bai ingurumen-egoeraren sentsibilizazioan (maila globalean nahiz maila lokalean), bai epe ertain-luzera duen eraginean.

Ingurunearen azterketa eta ezagutza irakaskuntza-praktikan txertatu dugu jolas-jarduera baten bitartez -Bakearen Egunaren ospakizunaren bitartez, esaterako-; horrenbestez, zeharkakotasunez landu da irakasgai eta maila guztietan.

Eskola-egiturako eta testuinguruko zer elementu izan dira lagungarri edo oztopo lorpen horiek izateko?

Klaustro osoaren eta familien laguntza izan da.

Zer ikaskuntza eta erronka izan ditut?



Jarduerak egiteko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea, bai eta ikasleen inplikazioa ere.

Garrantzitsua da herritartasun globalaren ikuspegiak txertatzea egiten ditugun jardueretan, lokala eta globala lotuz beti, jarduera puntual gisa har ez daitezten. Jarduerak bateratu ahal izateak, hori elkarrekin egiteak eta hortik ikasteak sareko lana errazten du.

Laguntzarako/ erreferentzia- rako baliabideak edo materialak

Giza baliabideak: 6. mailako ikasleek jarduera antolatzen eta gauzatzen parte hartu dute; horiez gain, klaustroak eta familiek ere parte hartu dute.

Materialak: berrerabiltzeko objektuak, hala nola zuku-potoak, irabiatuak, ogitartekoen aluminiozko papera, eba goma, egurrezko makilak, tapoiak...

Antolaketa: 6. mailako ikasleak taldetan banatzen dira, eta berek hartzen dute jardueren eta LH letik LH 5era arteko maila bakoitzaren ardura.

Jarduerak eta jolasak:

- Bideo motibagarria
- Uraren deskontaminazioa
- Airearen deskontaminazioa
- Lurraren deskontaminazioa
- Berrerabiltzea

Jardueren deskribapena:

- Bideoa – Martetarren kronikak
- Uraren deskribapena – Uraren garrantzia. Hildako arrainak garbitzea.
- Airearen deskribapena – Aire garbia arnastearen garrantzia. Garraio osasungarria.
- Lurraren deskribapena – Hondakinak biltzea eta edukiontzi egokietan birziklatzea.
- Berrerabiltzea – Zuku-potoen poltsak. Aluminiozko paperez egindako pilota-irenslea.

Jardueren lekuak: Ikastetxeko hainbat leku, hala nola proiektzio-gela, arealekua, gimnasioa, jolastoki estalia eta kirol-jardueretarako patioa.

Iraupena: 11:00etatik 13:00etara, gutxi gorabehera.

Amaitzeko, agiria irakurriko da, eta Juanesen Amo la Tierra (Maite dut Lurra) abestiaren koreografia egingo da.

